

LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA Ekainak 28

“Pertsona guztiak duintasunean eta eskubideetan libre eta berdin jaiotzen dira .” Hitz hauek ageri dira Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren lehen artikuluan. Tokiko udalen, erakundeen eta herritarren eskubideen babesaren eta defentsaren bermatzaileen oinarritzko lana gidatzen du.

50 urte igaro dira Stonewallen lesbiana, gay, transexual eta, batez ere trabestiak, poliziaren aldetik jasaten zituzten jazarpena eta xantaiaren aurrean erreboltatu zirenetik: data hori mugarri bihurtu zen LGTBI pertsonen borrokan. 10 urte beranduago, 1979ko ekainaren 10ean, polizia batek Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuen Erretereriako diskoteka batean, trabesti izateagatik. Ekainaren 28 horretan LGTBI pertsonak eta kolektiboak Euskal Herriko kaleak hartzen dituzte estreinako aldiz, euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzea aldarrikatuz.

Stonewalleko gertakarien geroztik ekainaren 28an LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen da: borroka disidente luzea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko falta den guztia aldarrikatzeko eguna ere. Covid-19aren pandemiaren ondorioz, une historiko aparta bizi dugu. Mundua oso astindua izan da, gure bizimoduak hankaz gora jarri dira eta "normaltasun berri" batera itzultzeaz hitz egiten entzun dugu. Hala ere, LGTBI pertsonak bezala gure gizarte-ereduak ezartzen duen arauarekiko disidenteak direnentzat, itzulera horrek diskriminaziora eta bazterkeriara itzultzea ekar dezake.

Konfinamenduak eragin negatibo espezifikokoak ekarri ditu LGTBI pertsonentzat, eta argi dago ondorengo krisi sozioekonomikoak eragin horietan sakondu baino ez duela egingo: LGTBI pertsona askok indarkeria jasan dute haien seguruak ez diren etxeetan bizi behar izateagatik eta, oro har, estres psikologikoa eta emozionala areagotu egin da, gainerakoek baino neurri handiagoan.

Erakundeetatik pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko erantzukizuna dugu, eta bereziki zaindu behar dugu LGTBI bezalako kolektibo zaugarrienen eskubide horiek izan ditzaten. Covid-19aren garaian ere egin behar dugu. Garaiz gaude "normaltasun berri" hori garai berri bat izan dadin, euskal jendarte errespetuzkoago, justuago, duinago eta askeago baterantz aurrera egiteko aukera bat.

Horregatik, ekainaren 28 honetan LGTBI kolektiboaren aldarrikapenekin konpromezua aitortu nahi dugu.

Era berean, Udal honek LGTBI pertsonen eskubideekin urteko egun guztietan duen konpromiso politikoa berretsi nahi dugu. Adierazpenetatik haratago, gure konpromisoa politika zehatzetan islatu behar da.



Horregatik, Udal honek konpromisoa hartzen du honako hau egiteko:

- 1) LGTBI pertsonen aurkako indarkeriaren aurrean erakundeen koordinazio, arreta eta erantzun publikorako protokoloak diseinatzea eta abian jartzea.
- 2) LGTBI pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatzea. Neurri hauek arloko batzordean aztertu eta adostu egingo dira.
- 3) Ekainaren 28ko aldarrikapen eta ospakizuna ikusgai egitera; horretarako udaletxeko balkoian ortzadar bandera zintzilikatuko da.

Era berean, herritarrak mobilizazioetan parte-hartzera gonbidatzen ditugu, bai gure eskualdean bertan zein gure lurralde historiko osoan ere.

Denontzako askea eta bidezkoa den Euskal Herri baten alde!